

# Hilarri biribilak

Euskal Herrian hain ugari aurkitzen diren hilarri biribilak, aintzina kanpotik hartuak baldin badira ere, beste gauza askok bezala, bertakotasuna hartu zuten. Hemen erroto eta bertako eratu zapaindua egin dira gure hilen orotarriak. E. Frankowski-ekin bat gator hilarrioi formaz giza idurizkoak direla, antropomorf, esaten duenean. Edonor euskaldunok dakien, magazandik ugaridura dira hegaldan baino, eta honek ere bere arazoia du, ondorean agertuko dugunez.

Hilarriok, esan bezala, apaingarri horietatik dira eta bertan agertzen diren gaiak herri artean maiz aurkituko ditugunak dira gehienbat, baina baita ere zenbait simbolo eta apaingarri hilarrietan maizago aurkitzen direnak. Ugaritasunez eta formaz aberats dira, gaiak heurak ere ugari, naiz kristauenak edo naiz jentilienak, erlijio guzietatik ogibidezko tresneria, bada ortarik. Gainera, apaingarriak, irudi formaletatik hasi eta forma abstraktuak arte, era zabalean, orotariko estilazioak dituztela elementu geometrikoak, gurutzak, ageritez, loraz, aberez eta, batez ere, izartegiaren sinboloz inoiz gure irudimenak misterioz kutsatzen arte, E. Frankowski, L. Colás eta J.M. Barandiaranen bildumetan ikus daitezken hilarri biribilatik oharituko garen.

Aintzina Pirineoko bi alderdian erabili zen, Catalunatik hasi eta Euskal Herrira, eta Kantabria zehar Asturiariko Portugalera arte, Gaztela zaharra barne zela. Hegoalderago ere banakaren bat aurkitu izan da, baina oso gutxi. Hauetan, gehienak Erdi-oroakoak dira, Clunia-koak edo izan ezik. Clunia, Burgos-en hegoaldean, Keltiberiarat ezagutzen denaren hiri nagusia omen zen, eta bertako hilarri biribilak Kristoren garaia baino zerbait lehenagoak dira. Guregandik hurbilago, Oka mendietako Somoro herrian (aintzina euskaldun herria helzen zen tokia) II. mendekoak aurkitu zen, bere idazkiaren argibidez.

Gaur egun Burgos-ko Museoa gordezen da.

Hilarri biribilak zaharrenak Italian, "villanoviense" eta etrusko garaioak, Kristo baino VI mende lehenagoak, eta beren garaiko batzuk ezagutzen dira Siria partean ere.

Euskal Herrian oster, Nafarroako Arazurikoak eta Santakarakoak hartu dute zahar gama. Gutierrez Erdi-oroako lirake, baina ez dugu agiri ziurrik. Santakarako honek duen berezitasuna harrigarria da, lau-burua izan ohi den bezala, honek, lauoin ditu. Beraz, munduan ezagutzen denetraskele bakarra da.

Zaharrenen artean katalogatu genezakean Elorrioko Argihetaoak dira, bertako hilobi batek X. mendeko urtea markatzen duenez. Arrigorriagako dugu beste bat oso zaharra. Bestalde, A. Aguirre Andres enaren ustez Bizkaiko Meñakakoa Burdin-oroakoa izan daiteke, *Materiales arqueológicos de Vizcaya* (1955) deritzen liburuan 136. orrialdean eta *Tumbas antiguas...* (1957) delakoaren 51. orrialdean berriz dakarrenez. Baina nik ez dut holakorik uste. A. Aguirre irudietan soilik oinarritzen zena eta Meñakakoaren bezalako irudiak aski dira Euskal Herrian. Bertako hiriburua eta epaiki horizen gisako puntatxoak Erdi-oroako itxura du gutienez, baina harintzago joateko bestelako agiritik beharko genuke. Dena dela, kontuan edukitzeakoa da.

XII. mendera arte apezpikuak bakarrik hobiratzen ziren elizetan. Gregorio IX. agandik (1227-1241) eman zen askatasun gehiago eta legoak ere elizetan hobiratzen hasi ziren, Frankowski *Estelas discoidales de la Península ibérica* deritzan liburuan dakarrenez. Bestalde, egile honek, Azpeitiko "carta puebla" delakoa (1324. urtekoa) jarsten du lekuko, Gipuzkoan XIV. mendeko elizetan hobiratzeko normala zela adierazteko. Honegatik, gure probintzi honetan aurkitu diren elizetako gehienak Erdi-oroakoak dira, bideetan hildakoegatik

eraikiak edo izan ezik (Plaentziatik Osintxura bidean eta Zestoatik Iraterra bitartean bezala, adibidez), gainerakoak elizetan hobiratzen hasi aurretikoak dira noski.

Hau da Ifar Euskal Herrian ugaritago aurkitzearen arazoia. Han ez bai zuten jarraitu alde hontako arauak. Nafarroan bertan, 1312. urtean Gaztelako erregeak menperatu zuenetik, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko arauera jarraituko zuten, muga zeharo erabaki gabe gelditu zen herri batzuetan izan ezik (Luzaidean bezala, adibidez) edo Baionako apezpikuetara loturik jarraitu zutenetan Pasatiak Irurera bitarte herri bezala, edo Bidasoko herriak adibidez). Gero, hamazortzigarren mendeen, Karlos III.aren denboran, hilarriak elizetatik kanpo jarri ziren eta garai horietan, muga ingurutuko zenbait herrietan handikaldeko influentziak usuario zaharri berriz lotuko ziren. Baina muga ingurutatik hegoalderantz aurkitzen direnak zaharizat jo genezake.

Gipuzkoan ezagutzen direnak, hogeiren bat dira gutxi. Gehienak Manuel Labordek katalogatu zituen, *Homenaje a D. J.M. de Barandiarán*, lehen tomoan (Bilbao, 1964), 139-155 orrialdeetan. Oraindu Seguran Katalogatu dit bestie bat, Rafael Berastegi ospitaleko baratzan aurkitua. Hilarri honek, bere parte biribilaren bueltan ere murrakizki ditu eta hau izango da holakorik duen bakarra, Gipuzkoan orain arte aurkitutakoan artean, eta bi alderdian dituen gurutzetatik Erdi-oroakoz jo genezake, elizetan hobiratzen hasi baino lehenagoak. Hain itxura zaharra ez badute ere, Seguran bertan M. Labordek, L. Peña Basurtok eta, F. Leizaola aurkitu zituztenak ere Erdi arokatat jo genezake.

Gure herri artea ikertzeko oinarri oinarrikoak dira hilarri biribilak. Hauen beste edozein monumentuk biano gehiago laguntzen digute apaingarritzat arabili diren gaiak eta maiz

mila urtean zehar edergarriak izan duten eboluzioa estudiatu ahal izateko; Euskal Herriaren estetika aburak azterteko elementurik onenetakoa ditugu gure hilarri biribilak.

Juan SAN MARTIN

Antiguamente su uso se extendía por ambas vertientes del Pirineo, desde Cataluña hasta Vasconia, para llegar desde Cantabria hasta Asturias y Portugal, abarcando Castilla la Vieja. Hay, además, algunos casos muy aislados hacia el Sur de la península. Generalmente son de época medieval, salvo las de Clunia (al sur de Burgos), antigua ciudad celtibérica, y algunas como la de Somoro (En Montes de Oca) que es del siglo II.

Las más primitivas se hallan en Siria e Italia, del siglo VI a.J.C.

Tenemos testimonios de que para el siglo XIV era general el enterramiento en los templos, en lo que respecta al reino de Castilla, y por supuesto en Alava, provincia de Guipúzcoa y Señorío de Vizcaya, a juzgar por la carta-puebla de Arzeitia. Lo más probable es que en Navarra siguieran a la antigua usanza hasta que fue invadida en 1512. Pero tal norma no afectó al País Vasco continental donde ha perdurado hasta nuestros días y por esto encontramos allá su riqueza en cantidad y calidad con todos los procesos evolutivos en los estilos.

Por sus características pueden ser muy antiguas algunas de la Alta Navarra, como la de Arazuri, por ejemplo, y muy importante en antigüedad y rareza la de Santacara, con tetraskale. Pero las que con certeza se pueden situar en nuestro país, son las de Argiheta (Elorrio), del siglo X, por la fecha que lleva uno de los sarcófagos. La de Meñeca (también en Vizcaya), según A. Aguirre Andrés, es de la Edad del Hierro, pero no veo ninguna razón que

apoye su hipótesis. Su ornamentación es bastante común a otras estelas del país de época posterior.

En el País Vasco peninsular, por la razón expuesta, las encontramos en menor cantidad que al lado continental, pero podemos señalar que en su mayoría se remontan a época medieval. En algunos municipios fronterizos de Navarra, por la cuenca del Bidasoa con Irún, pueden ser hasta posteriores, por su dependencia al Obispo de Bayona hasta el siglo más tarde, y en otros por pertenecer a zonas aún no delimitadas de la frontera. Posteriormente, el tratado ya en el siglo XVIII, el que llevó de llevar los enterramientos fuera del templo hizo que volvieran a la primitiva tradición por influencia de los pueblos vecinos de alente de la frontera.

Las que se conocen en Guipúzcoa son una veintena en total. En la mayoría catalogadas por M. Laborde, y casi todas ellas de la época del Goierri. Recientemente he podido catalogar una de Segura, llamada por Rafael Berastegi, en la misma villa, que viene a sumarse a la cuarta de este municipio. Las veintena fueron descubiertas por M. Laborde, L. Peña Basuro y F. Leizaola. Hoy de ahora tiene la particularidad de su canto ornamentado con dobles y triángulos de diente de sierra, decoración funeraria muy frecuente hasta nuestros días y que ya figura en las estelas de Arguiñeta. Por ello y por el resto de su ornamentación se puede clasificar entre las estelas medievales.

Las estelas discoidales son piezas fundamentales en el arte prehistórico vasco. Ellas pueden ayudar a determinar una pieza mobiliaria, o alguna ninguna otra pieza evolutiva de un mismo diámetro y evolutivo de un mismo diámetro a través de su ornamentación constituyendo los mejores ejemplos de los conceptos estilísticos de un nuevo pueblo.

# Gipuzkoako hibaia

Uda nahiko legorra izan dela bisitan dago. Uztaitetik ez dugula Gipuzkoan eurien freskotasuna ia ezertariko sentitu esan genezake. Eguraldi hau dela eta, baserriarrek ez daukela hain pozik entzun ahal izan dugu behin ta berriz: Eta ez zela arazoarik falta uste du. Bestalde, zenbait herriak ur-mozketak ditugu.

Agorraldi ondoren eguratsa kargatzen ekaitzaren arriak dator, ondorio guzietan: gogora iraitzen 19 eta 20an Euskal Herri osoan sufritu genuena: abiadura handiko haizea, kazkabarra; euri galdua... Eta honek ba dakigu zer ekarri ohi dugun: toki askotako hondamena. Galdetuz, bestela, Nafarroako Buñuel herrian, Uza gehiena bat batean galdua... Ba al dakizue zer den hau eguzte egun, ordur ordu, hurreko fruituen hazkundea maitetiro zaindu duen nekazarientzat?

Ene ustez, gauza on bat bakarrik ekar dezake ekaitzak gaurregungo Gipuzkoan. Zein den?... Bada, gure hibia eta erreketako garbiketa. Ez al da egia? Norbaitek esanda daukan bezala Gipuzkoa hiri handi bat bihurtu da, gerago eta zikinago dugu hiri handi bat. Eta zikinakia hau, jakina, erreka eta hibiataria ere iritsi da. Amurrain eta eskaluen bila Deba, Oria, ... eta abarreko erretzetara joan ohi ziren arantzaleen irudiak zaharren goaioan bakarrik gelditzen direla esango banu ez nintzateke errealtatek oso urrin ibiliko. Zibilizazioaren ordaina... Noizean behin, ekaitzak erkaritako uholdeak hibiaren aurpegia, azaletik ez bada ere, garbitzen duenean honen aintzina edertasuna, izkutatu dagoena, jabe gaitzek, gudan harrituta sortzen delarik. Geure hibia eta errekek dira! Hain hurbil eta hain ez ezagunak. Zeren, arduratu al gara behinola gure

probintziko geografiaz? Non eta noiz erakutsi ditziguke eskolan gure hibiatako xehetasunak? Baina uste dadezan alde batera aineoa, ez baigina ez inora helduko. Eta jar dituzun bitartekoak gurea den Herria ezagutzeko, ezaguerak honengana maitasuna ez bada ere begirunez ekarriko baitugu.

Gipuzkoa, berez, txikia da: bere hedadura ez da 2.000 km. kudrotara iristen. Beraz, hibeak ezin dezakete luzeraz haundirik izan, gehienak probintzian bertan jaiotzen baitira. Mendietatik itsasertzeraino arte motz honek hibiaren nahiko handia izatea dakar berarekin, zati batzuetan mila 25.a (25%) ematen delarik. Ondorioz toki hauetan izaten den erosioa garaia dugu. Gure hibiaren emaria, ordea, ez da oso garrantzitsua izaten, euri-jauzetaren arauer. Baina, atizirik, agorraldi luzea ematen ez den bitartean urtean zeharko emaria ta berdina izan ohi da.

● Zein dago pozoitsuago?: Deba, Oria?

Urik gehien daramana Oria hibaia da. Aitzgorrien magaletatik datorrelarik Zegamatik zehar Lasarteraino joaten du, hemendik Oriozant hartzeko. Danetara 66 km. ditu. Ibilbide honetan Aralaretik datozten Argantzua, Amundarain, Amezketa eta Arax erreketako urak bereganatzen ditu eta baita beherago, Andoainen, Leizarangoak ere. Hibat honen ertzean kokatuta dauden papergintzako lantegiak erabat kutsaturik utzi dituzte Gipuzkoako ur-jariorik handiena.

Baina, batzuen eritziz, probintzian daukagun hibiarik pozoitsuena Deba da. Leintzeko Gaztagan jaioa Deba herriraio doan honek Aramaio errekararen urak hartzen ditu Arasaien, eta Arantzukoak San Prudentzioan.

Aran hestu batetik igaro ondoren Eibarrik datorrenaz hazien da Maltzagan. Deba Garai eta Eriko entrepresak metal eta makinagintzakoak direnez ez da Oriako bisu nazkagarria usaintzen, baina hieki botatuko azido eta gainerako gaiek erabat hilda utzi dute 55 kilometroko ibilbidea.

Luzera berdina dauka Urola hibaia. Aitzgorrin jaioa Zumaiñan itsasortzeko. Urrestila eta Errezildik bitartean zatitako urak eta Zestuatik igaro ondoren meandro zabaletan hedatzen da.

Donostian itsasortzen dena Uru-mea dugu. Jaiotze nafarra da, Ezkurreko portuan, eta Goizuetatik zehar Artikutzara jaisten da handik probintziko hiribururaino iristeko. 40 km. ditu eta hoietan zehar beste erreka batzuen laguntza hartzen du, bidean zenbait urtegi eraiki direlarik.

Nafarra ere da, Baztangoa gainera, Bidasoa izenekoa, 60 kilometrokoa. Bere ibilbiderik gehiena probintzian egiten du Gipuzkoara. Ender-lazatik sartzeko. Hibat honek garbi xamarrak irauten ditu urak oraindik, noizean behin heurtetan harrazten diren salmoiek adierazten duten bezala. Bidasoa itsasertzerantz Beobia, eta Endaia ditu alde batetik, bestetik Irún, eta Hondarribi. Laburdia eta Gipuzkoa probintzian arteko lotura Bidasoari zer zaio.

Gipuzkoan ba da, noski, beste hibiak eta erreka asko. Ezin hemen denak aipatu eta entzuterik haundikoena bakarrik auleratu dituzte. Dena dela, denak ezagutu beharko genituzke, hain desberdinetan guztiak baitira garrantzitsuak. Saia gaitzen, beraz, gure probintzia ezagutzen eta zaintzen.

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

Conocer la red hidrográfica de nuestra provincia es algo que debiera de hacer todo guipuzcoano. No solamente por el mero hecho de obtener unos conocimientos más o menos técnicos. Es preciso, creemos, conocer lo que se posee. De otra manera no podremos prestarle consideración, ni mucho menos cariño.

Los ríos guipuzcoanos se encuentran en un lamentable estado de conservación. La industria de todo tipo que crece a sus orillas ha envenenado en gran parte los cauces. Algunos de ellos están al borde del no va más. Es el precio de la civilización.

LEGISLACION LABORAL Y SEGURIDAD SOCIAL

CURSO BASICO EN SAN SEBASTIAN, ORGANIZADO POR LA CAMARA DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACION DE GUIPUZCOA

Lugar: Locales de la Cámara (Aguirre Miramón, 2).  
Duración y horario: Doce jornadas (viernes comprendidos) de 9.30 a 14.00 horas, los días 3 de octubre y el 19 de diciembre próximos. Legación.  
Programa (síntesis): 41 temas, comprendiendo: legislación, suspensión de contrato, extinción del contrato, trabajo de mujeres y menores, huelgas y conflictos colectivos, negociación colectiva, representación de los trabajadores, sanciones y despidos, salarios mínimos, etc.; tributación (retenciones) y Seguridad Social (afiliación, cotización, recaudación, prestaciones, etc.).  
Objeto: Estrictamente pedagógico.  
Fin info inscripción: 30 de setiembre (martes).  
Información: En la misma Cámara (Aguirre Miramón, 2). Teléfono 27 21 00.

Pero quizás estemos aún a tiempo de poder salvar a Oriain, Urola, Urumea, Bidasoa... que llevan camino de convertirse en simples cadáveres. Es preciso, creemos, conocer lo que se posee. De otra manera no podremos prestarle consideración, ni mucho menos cariño.

Todos merecen nuestra atención, ya que, si bien en distinta medida, todos son importantes.